

UNIBASQEN ETIKA- ETA BERME- BATZORDEAREN MEMORIA 2017

Hitzaurrea

Memoria honen helburua da Unibasqen Etika eta Berme Batzordeak 2017an garatutako lana erregistratzea, eta, horrela, 2016ko uztailaren 13an Unibasqen Gobernu Kontseiluak onartutako Etika eta Berme Batzordearen Erregelamenduko 9. artikuluan ezarritakoari erantzutea. Honen arabera, Etika eta Berme Batzordeari dagokio “*urtean txosten bat egin eta argitaratzea, Kodearen inplementazio eta ezarpenean gertatutakoak jasota*”. Txosten horretan, erabaki loteslean edo gomendioak ematen dituen txosten batean amaitu diren Batzordearen jardunetakoren batean parte hartu duten pertsonen edo erakundeen konfidentziasuna errespetatuko da.

1. Aldaketak Etika eta Berme Batzordearen osaeran

Goi-mailako hezkuntzarako nazioarteko gomendioekin —eta, bereziki, *Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area* (ESG) gidalerroekin— bat etorritz, Unibasqek emakumezko kide berri bat txertatu zuen bere Etika eta Berme Batzordean, ordura arte Batzorde horretan ordezkartzarik ez zuen ikasleen kolektibotik zetorrena. Kide berria 2017ko maiatzaren 3ko bileran bildu zen batzordera.

Horren ondorioz, 2017ko abenduaren 31n Etika eta Berme Batzordeak honako osaera hau zuen:

- **Presidentea:** Aitor Zurimendi (Unibasqen Zuzendaritzaren ondokoa, zuzendariak eskuordetuta).
- **Batzordekidea:** Maria del Lluc Nevot (Ikasleen Aholku Batzordeak izendatua).
- **Batzordekidea:** Cesar Arrese Igor (Unibasqen Aholku Batzordeak izendatua).
- **Batzordekidea:** Xabier Etxeberria (Gobernu Kontseiluak izendatua).
- **Idazkaria:** Tamara Cantabrana (Unibasqeko langileek izendatua).

Kide berria izendatu ondoren, prestakuntza bat egin zen, non Unibasq zer den, zer helburu dauzkan eta beste zenbait gauza azaldu ziren. Horrez gain, Etika eta Berme Batzordearen

jatorria, xedea eta ibilbidea azaldu ziren, eta Batzordea arautzen duten Kodea eta Araudia aztertu ziren.

2. Etika eta Berme Batzordean egindako aldaketak.

2017. urtean, Etika eta Berme Batzordeak ez zuen egokitzat jo Kodean eta Erregelamenduan ezarritakoa inola ere aldatzea, 2016ko maiatzean bi dokumentu horiek aztertu, eguneratu, onartu eta argitaratu zirelako ENQAK Unibasqentzat egindako ebaluazio-txostenean ezarritako gomendioei jarraikiz, non ebaluatutako pertsona eta erakundeentzat berme gehiago sartzeko iradokizuna egiten zen, pertsona eta erakundeek, auzibidera jo baino lehen, ebaluazio-erabakiak Agentziaren aurrean errekurritzeko eskubidea bazutela txertatuta.

Etika eta Berme Batzordearen ustetan, gutxienez datozen bi urteetan ez da komeni dokumentu batean edo bestean aldaketarik egitea. Epe hori amaiturik, Etika eta Berme Batzordeak aztertuko du Kodea eta Erregelamendua nola aplikatu diren eta nola funtzionatu duten, eta zerbait berritzea komeni den edo ez balioetsiko dute.

3. Etika eta Berme Batzordearen bilerak

2017. urtean, Etika eta Berme Batzordeak bi bilera egin ditu.

1. bilera: 2017ko maiatzaren 3a:

Lehen bilera honako gai-zerrenda hau eduki zuen:

- 1.- 2016ko maiatzaren 24ko bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.-Batzordekide berria aurkeztea.
- 2016ko jarduera-txostenaren zirriborroa aurkeztea.
- 4.- Etika eta Berme Batzordea eta Kodea sustatzeko hobekuntza-ekintzak aztertzea.
- 5.- Galde-eskeak.

2. bilera: 2017ko ekainaren 22a:

Urteko bigarren bilerak honako gai-zerrenda hau eduki zuen:

- 1.- Aurreko bileraren akta onartzea.
- 2.-Batzordeari posta elektroniko bidez (comité_etica@unibasq.eus) igorritako erreklamazioa aztertzea.
3. Galde-eskeak.

4. Etika eta Berme Batzordearen jarduerak

2017. urtean, Etika eta Berme Batzordeak erreklamazio bat ebatzi du, xede horretarako eskuragarri jarritako helbidera (comité.etica@unibasq.eus) bidalitakoa. Prozedura horretan argudiatzen zenez, ebaluazio-organoak Kodearen bi artikulua urratuak zituen, baina horrek ez zuen zerikusirik prozesuan esku hartu zuten pertsonen inpartzialtasunik ezarekin, eta horregatik Erregelamenduko 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ebatzi zen. Txosten honen 5. atalean, erreklamazio horren edukia eta ebazpena xehatu dira.

Bestetik, Etika eta Berme Batzordea bereziki arduratu zen bere funtzionamendua sustatu eta hobe zezaketen ekintzak aztertzeaz. Azterlan horren ondorioz, fitxategi bat sortzea erabaki zen, Etika eta Berme Batzordeak esku hartu beharreko ebaluazio-prozesuetan sor daitezkeen gertakariak erregistratzeko. Izan ere, kasu batzuetan, Ebaluazio Batzordea osatzen duten pertsonen uko egiten diote txosten bat ezagutu edo hari buruzko iritzia emateari, Kodean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoi bat tartean dagoela argudiatuta. Komenigarria litzateke kasu horiek guztiak fitxategian jasotzea, kopuru zehatza jakiteko eta hala jokatu dutenen arrazoi ohikoena ezagutzeko.

Azkenik, Batzordeak prestakuntzarako eredu-eskema bat garatu du Etika eta Berme Batzordeak Agentziaren funtzionamenduan duen zeregin eta garrantziaren inguruan, *power point* formatuan. Prestakuntza hori eskainiko zaie Agentziaren Ebaluazio Batzordean txertatzen diren pertsonen edo Unibasqeko langile berriei, ongietorria egiten zaien eta Agentziari buruzko eta Unibasqen bete behar duten egokizunei buruzko prestakuntza jasotzen duten egunean.

5. Gorabeherak Etika eta Bermeen Kodea aplikatzerakoan

A.- 1/2017 GAIA

Etika eta Berme Batzordearen postontzi elektronikoan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle baten mezu elektroniko bat jaso zen, eta Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariaren 2015eko uztailaren 4ko Ebazpenean ezarritakoari jarraikiz ebaluatu zen; horren bitartez, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari-osagarri indibidualak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloa argitara eman zen. Zegokion Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-txosten bat egin zuen aurkeztutako eskaerari dagokionez, 2018ko ekainaren 3ko Erabakiaren babesean (170. EHAA). Txosten bakar eta indibidual hori eskatzaileari jakinarazi zitzaion deialdi horretan ezarritakoari jarraikiz, eta horri puntuazioa erantsi zitzaion, atal eta azpiatalen arabera xehatuta.

Interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen, Ebaluazio Batzordeak eskaeraren atal batzuetan emandako puntuazioekin ados ez zegoela adierazteko. Errekurtso hori denboran eta forman ebatzi eta jakinarazi zen.

Batzorde honi bidalitako erreklamazioan, interesdunak, errekurtsoaren ebazpenean eman zitzaizkion azalpenekin ados ez zegoenez, zera argudiatu zuen, ebaluazio-prozeduran Unibasqek Etika eta Berme Kodearen 9. eta 14. artikulua urratu zituela, ezarri beharreko irizpideei buruzko informazio argia eta gardena ez emateagatik. Erreklamazioaren berri izan ondoren, Etika eta Berme Batzordeak erabaki zuen haren berri izateko eskumenekoa zela, Erregelamenduko 1. artikuluko 5. atalari jarraikiz, eta Kodearen 9. eta 14. artikulua ez zirela betetzen ebatzi zuen.

Gehiago sakonduz gero, Unibasqen jarduera arautzen duten printzipio horiek espresuki onetsita daude ordainsari-osagarriak ebaluatzeko programarako, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 6.2, 8.3 eta 8.9 artikuluetan, 64/2011 Dekretuak emandako idazkuntzaren arabera.

Jurisprudentziak zenbait epaitan baietsi duenez, deialdiaren aurretik Protokoloa argitaratuz bermatu egiten da *“sistema objektibo, orekatu eta garden bat, bakoitzean goreneko balioa*

duena”, baina ez hori bakarrik; izan ere, eranskinen arabera ebatzi zuenez, “irizpide mota bakoitzean ekarritako merezimenduen ebaluazioa egiteko, aldez aurretik adierazitakoaz gainera, puntuazio partzialak esleitu dira irizpide mota bakoitzaren barruan...”

Horregatik guztiagatik, Etika eta Berme Batzordeak ez zuen gardentasunik edo informaziorik eza ikusi, ezta babesgabetasuna ekar lezakeen motibaziorik eza ere. Eta hori interesdunak ebaluazio-txosten bat jaso zuelako, non azken puntuazioa justifikatzen den ez soilik atalen arabera, baita puntuazio propio batez balioetsi daitekeen azpiatal bakoitzaren arabera ere. Izan ere, Batzordeak azpimarratzen duenez, Ebaluazio Batzordeak errekurtsuari emandako erantzunean aintzat hartu ditu eta erantzun egin die interesdunaren ustetan ongi balioetsi ez ziren gai guztiei, eta horren adierazgarri dugu errekurtsua partzialki baietsi duela, ataletako baten balioespena aldatuz.

Azken batean, Batzordearen ustez, ebazpenaren gardentasunik, informaziorik eta motibaziorik eza baino gehiago (erreklamazioa jartzea edo ebaluazioa oinarritzen duten irizpideen berri izatea galaraziko luke), desadostasun soil bat nabari da, erabilitako irizpideen eta ekarritako merezimenduei irizpide horiek aplikatzeko moduaren gainean; horrenbestez, Batzordeak eskaera hori ezetsi egin du.

B.- Bestetik, Unibasqeko langileek Etika eta Berme Batzordeari jakinarazi diote noizbait gertatu dela ebaluatzailea bilera presentzial batera bertaratu ez izana espediente indibidualen bat ebaluatzen ari zenean, ebaluatutako pertsonarekin harreman profesionalen bat zuela uste zutelako, bereziki ikerketa-proiektu berean parte hartu izanagatik edo baterako proiektuetan bi aldiz edo gehiagotan harekin egon izanagatik. Era berean, kasuren batean, ebaluatzaileak uko egin dio espediente bat ebaluatzeari antzeko arrazoiengatik, eta beste pertsona batzuen esku utzi du lan hori. Azken batean, bi kasu zehatz horietan uko egin diote ebaluatzeari, eta Kodean bertan agindutakoa aplikatu da.

6. Etika eta Berme Batzordeak egindako gastuak

Batzordearen bilerak	1250 €
----------------------	--------

Atxikitako bestelako gastuak (itzulpenak, bidaia-gastuak, bestelakoak,...)	858.47 €
Guztira	2108.47 €